

ERAKUSKETA:

“BERMEOKO HISTORIA POSTALA. XIX-XX MENDEAK”

2019.09.24 – 2019.12.01

Erakusketa honen bidez, Filateliaren mundu zabala eta, baita, Bermeoko eta Bizkaiko historia zati bat aurkezten dira. Filatelia posta zigiluak biltzeko eta aztertzeko zaletasuna da, baita posta zerbitzuaren baitan sortzen diren aspektu guztien ezagutza. Honetan dihardutenei “filateliko” edo “filatelista” deitzen zaie. Hau da Bermeoko herritar den Aitor Goitia Kortazar-en kasua, orain dela bi urte hasitako bildumaren zati bat aurkezten baitigu erakusketa honen bitartez.

Postal eta eskutitz batzuk modernoak direla esan daiteke, hainbat garraio mota ezberdinetan bidaiatutakoak guztiak, eta nola ez, gerra garaiak bizitakoak asko. Kutsu komertziala duen korrespondentzia aurkitu badaiteke ere, badaude gutun eta postal horiek idatzi zituztenen penak eta pozak gordetzen dituzten aleak ere.

Aurkeztuko den bilduma osatzeko eta aberasteko asmoz, César Tejadak eta Rubén Gilek ere beraien zaletasunaren emaitzaren zati bat erakutsiko dute, gerra zibilaren garaiko hainbat dokumentu ezberdinen bidez.

EKIMENAK:

Erakusketa zabaldu eta hurrengo igandean, irailak 29an, Correos-eko funtzionario bat izango dugu Museoan erakusketaren harira sortu den aurretiaz frankeatutako postalari zigilu-marka jartzen.

Postal hauek bidaltzeko ez da zigilurik behar, zuzenean postontzira botata hartzailearengana helduko dira. Gainera, filateliaren munduan murgilduta daudenentzat ere ale berri bat eskuratzeko aukera izango da.

EGUNA: irailak 29 (igandea)

ORDUA: goizean zehar

MUSEOKO ORDUTEGIA:

Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-19:00

Igandeak eta Jaiegunak: 10:00-14:00

KONTAKTUA:

ARRANTZALEEN MUSEOA

Ertzilla Torrea – Torrontero enparantza

48370 Bermeo

Tel. 94 688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus